

kantitate berbera badago, hurrengo zenbakiari erreparatu behar zaiola. Ikus daitekeenez, jarduera honekin, hamarrekoez ere hitz egin daiteke.

- Zenbaki bat, bi batugai edo gehiagotan deskonposatzea: zenbaki bat proposatzen da, adibidez 8, eta pieza bat zenbaki horretan zintzilikatzen da. Beste aldean, bi zenbakiren arteko batuketa eginez 8 ematen duen batugaietan jarri beharko da, hots, 5 eta 3, 7 eta 1, besteak beste.
- Bi batugai edo gehiagoren arteko batuketa egitea: aurreko ariketaren antzekoa da, baina alderantziz. Balantzaren alde batean bi zenbakietan pieza jarriko da eta beste aldean bi batugai horren erantzunean jarriko da pieza.
- Trukaketa eta elkartze propietateak egiaztatzea: $a+b$ batzea $b+a$ batzea bezala dela ikustea da ariketa honen helburua. Balantzaren alde batean, ordena jarraituta, bi pieza jarriko dira: a eta b ; eta beste aldean, b eta a ordena jarraituta. Adibidez: $2+4$ eta $4+2$.
- Zenbaki bati zenbat falta zaion beste zenbaki batera iristeko: balantzaren alde batean 7an pieza bat jartzen da eta beste aldean 10an. Honela, segituan ikusiko da 7a dagoen aldean pieza gehiago jarri behar direla, balantza nibelatuta geratzeko. Non jarriko dugu hurrengo pieza galdetu beharko du haurrak bere buruari eta probak egin. Modu honetan, buruko kalkuluak eginez eta ondoren, balantza egiaztatuz, balantza nibelatuta geratzea lortuko du.

Bibliografía

- CANALS, M. ANTONIA. (2009), *Primeros números y primeras operaciones*. Barcelona: Associació de Mestres Rosa Sensat.
- ALCALDE, M., PEREZ, I., LORENZO, G. (2014), *Los Números Naturales en el aula de Primaria*. Castelló de la Plana: Publicacions de la Universitat Jaume I. Servei de Comunicació i Publicacions.